


KONTZILIAZIO PLAN BATEN GARAPENERAKO FASEAK



1. FASEA

ERAKUNDEKO ZUZENDARITZAREN KONPROMISOA

Erakundeko Zuzendaritzak erabakitzen du Kontziliazio-Plan bat eratzea eta konpromiso-dokumentua idazten du, ezarriko diren neurriak eraginkorrak eta errealak izateko helburuarekin.

2. FASEA

KONPROMISOAREN KOMUNIKAZIOA

Zuzendaritzak langilegoari komunikatzen dio kontziliazio erantzunkidea sustatzeko hartu duen konpromisoa eta Kontziliazio-Plan bat garatzen hasteko nahia adierazten du.

3. FASEA

LAN-TALDEAREN SORRERA

Lan-taldearen sorrera, prozesua diseinatu eta aurrera eramanez. Berdintasun-Batzordea izatekotan, gomendatzen da haren laguntza eta koordinazioa izatea.

4. FASEA

KONTZILIAZIO DIAGNOSIAREN LANKETA

Lan-taldeak erakundeak dituen kontziliazio-behar errealen analisia egiten du, ikerketa teknika ezberdinak konbinatuz, bai kualitatiboak baita kuantitatiboak ere.

5. FASEA

KONTZILIAZIO PLANAREN LANKETA

Diagnosia burutu ondoren, haren emaitzetan oinarrituz, lan-taldeak sortuko du Kontziliazio-Planaren edukia, 5 lerro-estrategikori jarraituz: estrategia eta erakundea, neurri erantzunkideak, Kontziliazioaren aldeko neurriak, Komunikazioa eta hedapena, eta jarraipena eta hobekuntza.

6. FASEA

KONTZILIAZIO PLANAREN HEDAPENA

Langile guztiei ezagutzera emango zaie Kontziliazio-Planaren jasotako neurriak, baita proiektuaren koordinazioa eta jarraipenaren ardura izango denaren kontaktua.

